

XXI. mendearen atarian,
eguneroko berri dira
mendizale ausartenen
trebezia eta balentriak.
Milaka metroko horma
izoztuak, non eutsirik ez
duten pareta
bertikalak... Gailur
batera igotzeko asmoa
sikiera ahaleginik egin
gabe bertan behera uztea
ez da usu gertatzen.
Asmo hori Patagonian
kokatu ezean, noski.
Bertan arrakasta izatea
ez baitago mendizalearen
baitan. Ederki dakite hori
Dama Zuria —inoiz igo
gabea— igotzen
saiatu diren
bizkaitarrek.

Dama Zuria

Liraina bezain egoskorra

Andoni Urbistondo

DAMA ZURIA Sarmiento mendikatean dago, Txile hegoaldeko azken muturrean. Inork ez daki bere gailurra txikia ala handia den. Bidea nolakoa den. Pazifikoko itsashaize bortitzek gailurra zenbateraino astintzen duten. Saiok saio, Dama Zuriak ateak itxi dizkie bere domeinura bertaratzeraz ausartu diren kanpotarrei. Azkena hiru euskal herritarrek egin dute, azaroan eta abenduan: Jose Carlos Tamayo eta Iñaki San Vicente bizkaitarrek eta Txus Martin Arrasateko abenturazale «txiletarrak». Beraiekin batera, TVEko *Al filo de lo imposible* saioko kide batzuk joan ziren azaroa bukaeran.

Iñaki San Vicenterentzat ezaguna zen eremu hura, iaz ere leku berean egon baitzen. Hark esanda, espedizioak jakin bazekien infernua zela euren jomuga: etengabeko euri jakak, haizea eta inoiz alde egiten ez duen hezetasun petrala. Infernu horretan Patagoniako eguraldiak ez du Gabonetako oporrik hartu. Dama Zuria egoskor jardun da berean, beste behin.

«Eguraldia txarra izan da, txarregia», dio Jose Carlos

Tamayok. Bizkaitarraren aburuz, bidaiako egun politenak hasierakoak izan ziren. Puerto Natalestik Resi fiordoa zeharkatu zuten Tamayok eta San Vicentek bost eguntan, horietatik lau arraunetan. «Azaroan, eguraldia txarra izan zen, baina barealdi batzuekin. Abenduko lehenengo 15 egunak, aldiz, infernu bat». «Kanpin dendatik ateratzea ezinezkoa zen ia. Txixa egiteko ere kanpoan ibiltzeko erabiltzen genuen arrantzale buzoa jantzi behar genuen gutxiago bustitzeko».

Gailurrera igotzeko ahaleginik ez

2.000 metro pasatxo ditu Dama Zuriak, Sarmiento mendikateko gailur garaiekin, baina espedizioak mendi horren zilueta ikusita hartu behar izan du etxerako buelta. «Ez dugu gailurrera igotzeko ahaleginik egin. Ezi-

Beste jira bat erruletari

✱ Tamayo joan den astean itzuli zen, baina Iñaki San Vicente kidea, oster, Sarmienton geratu da Txus Martinekin. Arrantzontzi batek hiruzpalau astera-ko elikagaiak eraman zizkien beheko kanpamendura, eta horiek amaitu bitartean, Dama Zurira igotzeko azken ahalegina egiten saiatuko dira. «Zorte onena opa diet. Akaso, guk hila-

nezkoa izan da. Pare bat alditan 800 metrora inoiz ginen, glaziarra hasten zen tokiraino eta beste bitan 1.200 metrora. Deposito antzeko bat antolatu eta kanpin dendatik bat jarri genuen, baina

bete eta erdian egin ez duguna eurek hiruzpalau astetan egingo dute».

«Patagoniako eguraldia loteraren antzekoa da, erruleta jokoa bezala. Zortea izan dezakezu, edo ez». «Eguraldi ona usaindu orduko denbora zipitzik ez galtzea da gakoa. Aitaren batean osatu behar da bakoitzaren asmoa». Beti bezain egoskor izango al da berriro Dama Zuri liraina?

hortik gora ezer ez», Tamayoren esanetan.

Azken saioa abenduaren 23an egin zuten. «Abenduan, 23an, 25ean eta 26an berriro igo ginen 800 metro arte, azken aukera probestu

asmoz, arrisku gehiegi hartuta, baina alferrik». Eguraldi euritsuaren ateraldi murriztuz horietan, behintzat, telebistak filmaketa lanak egin ahal izan ditu.

Hainbeste egun gris kanpin dendan ematea, «gogorra egiten da. Badaezpada ere, liburuak, irratia eta abar genituen. Gero, aintzat hartu behar da baldintzak ez direla hain muturrekoak. Eguraldia txarra da, baina janaria duzu, ez du hotz handia egiten, ez zaude altuerako kanpamendu batean... Nolabaiteko erosotasuna zegoen». Hala ere, Tamayo nahiko a-tsekabetuta bueltatu da, «40 egun euritan egun asko baitira».

Jose Carlos Tamayo

Forro-Polarrak
%20-%30

Eskeintzak
Botak
Galtzak
Eskiak

Gore-Tex
txaketak
24.900 pta.

Sherpa

Santa Klara, 12 • ORERETA • Tel./Faxa: 943 516192

NAIROBITARRA

Otsailaren 19tik martxoaren 12ra

Peru eta Bolivia
283.000 pta.

banca

9 4 4 2 4 0 0 1 1